

Noaia !!

www.noaia.com



Aukera berdintasunari
buruzko azterketa
egingo da



“Etxe Berri de Luxe”,
Txerrikiren
antzezlan berria



Aseguru Artekartitza

Eskatu aurrekontua

- autoak
- etxeak
- bizi-aseguruak
- komunitateak
- merkataritza-denak
- enpresak
- pentsio planak

Telf: 943 37 11 18 telf/fax: 943 37 19 97 Plaza Uzturre, 8 Lasarte-Oria pikabea@infonegocio.com J-0078EUS

Alquidepil

intza
WELLAILEAPAINDEGIA

LASER DEPILAZIOA
diodo Lightsheer laserrarekin

diodo laserra

depilazio iraunkorra

%20,

%30 eta

%50ko

DESKONTUA!!!

Nagusia 8, 943 363 641

Albistea iruditan !!

Joxerra Unanueren erakusketa, bisitarien zain

Artelan bat begiratu eta begien aurrean duguna zer den asmatu ezin bada, bertan islatua dagoena interpretatzeko joera izan ohi da. Hala, egileak berak mezurik helarazi nahi badu, bakoitzak bere moduan ulertuko du. Barrenkalen kokatuta dagoen erakusketan ez da halako saiakerarik egin behar. Gu guztion begien gozamenerako ireki baitu Joxerra Unanue donostiarrak margolan eta eskulturez osatutako erakusketa, NOAUA!k antolatuta. Igandera arte zabalik izango da honako ordutegian: osteguna eta ostirala, 18:00etatik 20:00etara. Larunbat honetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Eta azkenik, igandean, 12:00etatik 14:00etara.



UDALETXE ONDOAN DA JOXERRA UNANUEREN MARGOEKIN OSATU DEN ERAKUSKETA.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordinberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com
Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com
Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com
Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza, Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

KRONISTAK KALEJIRAN _____ 6. OR.

DATORREN ASTEAN, ELKARTASUN ASTEA _____ 8. OR.

IGANDE HONETAN, PASEO EGUNA _____ 13. OR.

ENDIKA ABRIL TXAPELKETAKO FINALA _____ 15. OR.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

URDAINTZI S.L.
erakusketa

943 36 03 21
943 36 03 21
943 36 03 21

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

LATAILLADE ITURGINTZA

GASA BERORUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxo 8, behea - 943 363 348 - 609 888 021



JOXE PIÑAS

Etekinak beraientzat, krisia guretzat!

Unibertsitatean Ekonomia ikasi nuen. Euskal Herriko Unibertsitatean esan nahi dut. Beno egia esanda EHU-n Ekonomia ez nuen ikasi. Titulua bai, hori bai eskeratu nuen. Ez pentsa tranpetan ibili nintzela hori lortzeko, azterketetan kopiatzen nuela, e.a., ez, ez da hori. Klasera joaten nintzen, irakasleak esaten zuena entzuten nuen, baina zer ikasi daiteke “oportunitateko kostua” kontzeptua defendatzen duen unibertsitate batean? Hau da, irakaslearen ustez hondartzan edo mendian lasai asko lagunekin, bikotearekin edota liburu bat irakurtzen gaudenean dirua irabazteko oportunitatea galtzen ari gara, eta horrek kostu bat suposatzen du: “oportunitateko kostua”. Teoria honen arabera dirua irabazten ez gaudenean zerbait galtzen ari gara. Eta zergatik ez kontrakoa diot nik? Gehienetan ez al da gertatzen dirua irabazten ari garenean bizitzaz disfrutatzeo aukera galtzen ari garela? Ez al da hau kostu handiagoa? Ez pentsa ez nintzela saiatu irakaslearekin hau guztia argitzen; klasean eztabaidatu genuela bai noski... pentsa ezazue nolatan eta: irakasleak azterketa batera eramanean zuen gaia eta galdera batean kontzeptu horixe esplikatzea eskatzen zuen. Nolabait norbaitek “oportunitateko kostua” kontzeptua ez bazuen ulertu, onartu alegia, irakasleak azterketaren notan zigortuko zuen.

Gaur egungo Ekonomia, eta bere krisia, kontzeptu dirukoi horren menpean dago. Bestela hona hemen galdera batzuk:

Azkeneko urteetan bankuek milioika etekinak eduki dituztela kontutan hartuta, esate baterako 2007. urtean

Kutxak 215.500.000 eta Euskadiko Kutxak 209.000.000 euroko etekinak, jakin al daiteke nork duen orain diru hori guztia? Logikoa al da “oportunitate kostua” berekoi kontzeptu horretan oinarrituaz krisia sortu dutenei saritzea gure dirua oparituta? Eta bitartean, lanik gabe gelditzen ari direnentzako zer dirulaguntza eskaintzen ari dira? Inork entzun al du langabeziari aurre egiteko dirulaguntzak areagotuko direla? Beraz, logikoa al da bankuei, eta ez guri, gure dirua ematea? Are gehiago, kontutan izanik bankuek aurten galderak ez dituztela, 2007. urtean baina etekin gehiago edukitzean ari direla baizik (esate baterako Kutxak aurreko urtearekin alderatuz %3,60ko etekin gehiago lortzen ari da), ez al da logikoagoa etekin horiek zergen bidez denon artean banatzea? Eta etekinak badituzte zergatik diote krisian daudela? Zergatik jarri behar da ondasun publikotik batzuek bere kontuetan gorde duten diru kopuruaren heina?

Ez al da logikoa lapurtzen digutela sentsazioa edukitzea? Eta ez al da logikoa honengatik kexa egitea?

Ekonomiaren lizentziatura Mexikon lortu nuen. Mendian galdutako unibertsitate batean, pobrezi larridun eskualde batean, diru gabeko indigena eta nekazal ikasleez inguratuta, Ekonomiaren benetako esanahia ikasi nuen: “Oikonomia” hitz grekoa da, “oiko” (etxea) eta “nemo” (administratzea), alegia etxea administratzea, eta zentzu zabalean ulertuaz lurraren baliabide naturalak kudeatzea eta zaintzea, denon etxea dena babestu eta gozatzeko.

Benetan, han bezala, hemengo kaleetan eta mendietan unibertsitate bat dago.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: azaroak 28. Idatzia ekartzeko azken eguna: azaroak 24.

ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! astekaria, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Plis, Plas, Txalo eta Jolas, ...

Askoko dugu esateko. Baina zure laguntza ere premiaza da.

Bazkide egin zaitez!



36 euro urte osorako

Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Telefona: _____
 E-posta: _____
 Kontu korrontea:

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Atez ateko bilketa bultzatzen duen ekimen legegilea aurkeztu da Eusko Legebiltzarrean

Gipuzkoako Errausketaren Aurkako Koordinakundeak herri ekimen legegilea erregistratu zuen lehengo astean Eusko Legebiltzarrean. Euren ustez, gaikako bilketa da hondakinak kudeatzeko sistemarik egokiena: "Zaborrak ezabatzearen alde egiten duen sistema da, eta saihestu egiten ditu errauste planta batek pertsonen osasunean eragiten dituen kalteak. Hori da zaborrak kudeatzeko biderik onena eta eraginkorrena".

Koordinakundeko bozeramaile Maria Luisa Sanchezek azaldu zuenez, Herrialde Katalanetako ereduaren pareko araudi bat ezartzea proposatu dute: errauste plantarik gabe, eta bilketa atez ate eginez.

LEGE PROPOSAMENA

"Lege ekimena eztabaidatua izan dadin, 30.000 sinadura bildu beharko dira lau hilabeteko epean"

Legean jasotzen dena aurrera eramateko eta ikuskatzeko, gainera, hondakinaren agentzia bat sortzea egokitzat jotzen dute.

Legebiltzarreko Mahaiak hilabete du herri ekimen legegilea tramiterako onartzeko. Hortik aurrera, koordinakundeak lau hilabete izango ditu 30.000 sinadura biltzeko. Sinadura



KOORDINAKUNDEAREN ESANETAN, HERRIALDE KATALANETAKO HERRI ASKOTAN DA MARTXAN ATEZ ATEKO BILKETA SISTEMA.

horiek Eusko Legebiltzarrean aurkeztu beharko ditu, lege ekimena eztabaidatua izan dadin. Dagoeneko hasi dira alderdiei beren proposamena aurkezten.

Sindikatuaren babesa lortu du lege proposamenak

Errausketaren Aurkako Gipuzkoako Plataformen Koordinakundeak Eusko Legebiltzarrean aurkeztu duen hondakinaren lege egitasmoa babestu dute sindikatuak. Astelehenean agerraldia egin zuten, Koordinakundeko kideekin batera, CCOO, EHNE, EILAS, ELA, ESK eta LAB sindikatuetakordezkariek. Eguzkik, Ekologistak Martxanek eta Greenpeacek ere babestu dute errausketa debekatuko lukeen lege egitasmoa.

"Atez ateko sistemaren bidez, hondakinaren %80 birzikla dezakegu"

Usurbilen, gaur egun, hondakinaren %28 baino ez dira birziklatzen. Ahal bezain laster %60 izatea gustatuko litzaieke. "Atez ateko sistemaren bidez, %80 ere birzikla dezakegu", hala diote Gipuzkoako Koordinakundeak.

Sistema berriarekin, gainera, zabor organikoa bereiztuta bildu eta berehala egongo da konpostatzeko prest.

Emaitzak onak badira, Koordinakundeak dio "udal askok ezarri nahiko dute beren herrietan atez ateko bilketa".

ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea,7
Tlf 36 21 64
USURBIL

ERRAZKIN
Igeltzeritza S.L.
Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679
K./ Nagusia 47, Behea A.
20170 USURBIL

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466
pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak **TABERNA**

KALEBERRI

IRATI PORTU

Ohiturak edo



Goizean leihotik begiratu dut ea zer eguraldi egiten zuen. Txikitatik egin izan dut, baina desberdintasun txiki batekin: gaur zuzenean gora begiratu dut. Hala egin ohi dut azken urte hauetan, baina lehen ez, lehen Kalezar aldera begiratzen nuen beti, eta gero apur bat begiak altxa eta Aiako Harria, Adarra, Andatza... denei begira geratzen nintzen lerdea ahoan. Negu partean intentzio handiagorekin begiratzen nuen, Adarran elurra noiz agertuko zain.

Gaur ez dut halakorik egin. Badira urteak, Artzabal ondoko etxeak egin zituztenetik, nere etxetik halakorik ez dela ikusten. Holaxe, tristura horrekin jaitsi naiz kalera. Hasieran gogoratzen naiz izugarrizko amorrua eman zidala eta ez nintzela inoiz ohituko pentsatu nuela. Bidean gure herria zenbat aldatu den pentsatzen joan naiz. Gauza batzuk ondo gogoratzen ditut nola ziren, adibidez Artzabal baserria bera, baina beste batzuk ez ditut oso argi gogoratzen, ondoko belardia noraino zabaltzen zen, bere itxura adibidez. Frontoi parera iritsi eta hor Aitzaga. Bada denbora bere barrazko atea itxita ikustera ere ohitu gara.



Pertsonen ohituzeko trebezia paregabe hau aprobetxatu beharra daukagu. Nire esperantza da atez atekako zabor bilketara ere ohituko garela, ikasiko dugula eta onartuko dugula, eta horrela beste herriek ere ikasiko dutela. Esperantzarik handiena, ordea, inoiz errausgailura ohitu gara esan beharrik ez izatea da.

SANTUENEA

ALEX TELLO

Banpiroen mundua



Goizeko lauetan esna zegoenez, ohetik jaiki eta auzoan barna paseatzera, bakarrik buelta bat ematera irten zen, bakarrik. Ordu fresko hartan, garajeetatik igorritako zakurraren zaunka isolatua baino ez zen entzun. Auzoa lo zegoen.

Auto hotsak mutu eta argiak kaleetan (eta ilar-giko islan). Bizilagunak adostasunean, lo. Denak ez ordea, hala, ibaiaren beste aldeko lantegietako langile eta makinek ez zuten inor iratzartu nahi. Fabriketako zarata etengabeek ibaiaren doinuekin paisaia bat egiten, aspaldidanik txertatuak zeuden paisaia lasaian.

Norbanakoaren bakardade noragabea agerian sentitzea arraroa egiten zaigu. Azken tabernaren aurrean aurkituko balitz... Telebista (eta ordenagailurik) ez balego, gehiago izango lirateke 'hala' ibiliko liratekeenak. Zertan, nola bestela?

Ohean loan nahiago zuen arren, mantso eta geldialdi luzeak maiz eginez, determinaziorik gabe paseatzen zegoen. Gero, denbora-minutu gutxietara, Santuenea auzoko langileen etxetan argiak eta aktibitatea piztuko ziren. Giza-inurriak gara.

Istorio honetako pertsonaia, lehen, egunez inurria zen eta gaez... Gauetan zombia izanagatik, egunez inurri-zonbian bihurtuko zen. Non eta, banpiroen munduan.

ATXEGALDE

M^A JESUS URBIETA

Zorionak Irriu!

Santa Zezilia eguna badator, eta abesbatzak kantuan jarriko ditu umore onarekin. Abesteko zaletasuna badugu Euskal Herriko herri eta auzotarrak, aintzinatik eta urte sasoi honetan ospatzen dugu. Gazteek ere asko lantzen dute Musika Eskoletan. Horietako adibideak ikusi ahal izango ditugu egun hauetan Kultur Etxe edo antzokietan.

Parrokian ere prestatzen da urtero saio berezia. Bertan elkartzen gara partaideak, batzuk urte asko daramatzate gainera. 70 urte egitean omenaldi txiki bat ere egiten diogu elkarri eta aurten Maritxuri heldu zaio bere eguna. Zorionak Maritxu! Hau guztia Ramon Udaberen itzalean egiten da. Astero elkartu, entsegu polit bat egin eta gustora jarduten gara. Zorionak Irriu!

Bestalde, negu atarian gara eta giroa aldatu dela esan genezake. Hotzak eta eurriak ukitu gaituzte eta berogailuak eta berokiak atera ditugu. Andatza kolore ezberdinez jantzi da, udazken koloreaz. Honek urtea bukatzen ari dela esan nahi du.



KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

Kontu kontari udazkenean



Negu usaina duen udazkeneko egun umel bat da gaurkoa ere; euri langarra ez da gelditu egun osoan zehar.

Ez zuten ez zorte makala izan pasa den igandean Behobiako herri lasterketan atera ziren 16.300 korrikalariak!!! Hori da hori jendearen emana, pasa eta pasa, botilak bota eta bota bide bazterretara (ikusitako behar zen proba ostean nola gelditu ziren Lezo bazterrak, eta gainontzekoak, pentsatzen dut). Txalogarria iruditzen zait jendeak egiten duen esfortzua eta sortzen den giroa eta nahi duzuen guztia, baina oraindik ere inkontziente ugari dagoela iruditzen zait lasterketa honetan. Aurten ere zenbat atera ote dira "baietznik Behobia egin, ez dek potrorrik Behobia egiteko, baietz 1:30 baino gutxiagoan egin Behobia" eta antzerako esaldien presiopean. Gero geroakoak...

Perretxiku zaleak ere hortxe dabilta han hemenka alerik bilatuko ote mendian gora eta behera. Herritarrak ere ibiliak dira telebista saio batean beren ezagupenak gainontzekoei erakusten. Ea eguraldiak laguntzen dien gozamen gehiago hartzen.

Ehiztariak ere ez ziren haserre ibiliko aurreko egunetako



hego haizearekin. Beldurra ere ematen zuen mendi aldera joateak; tiro hotsak han hemenka entzuten ziren eta pentsatzeko da ehiza eramateko aukera behintzat izango zutela. Ikusi egin behar gero zenbat lortu zuten!!

Eta, tiro hotsak aipatu ditudan honetan, hori da hori sustoa hartu genuena pasa den asteko iluntze batean. Ez dute ba dinamita lehertarazten Aitzeta barrenean egiten ari diren tunel zuloetan, iluntzeko bederatzia aldean!! En fin...

AGINAGA

ANE MANZISIDOR

Errepidean arazoak



Jadanik azaroaren erdi aldera iritsiak garen honetan, nabari da negua geroz eta gertuago daukagula. Egunak motzagoak dira, ilunabarretako freskura, jada freskura izan beharrean, hotza egiten du...

Aginaga aldean, ez daukagu inolako berririk. Azken berria, azaroaren 6an izan genuen. Izan ere, Izagirrearen pabiloietan lehergai baten abisua izan baitzuten. Hau dela eta, Aginagara iristea zaila gertatzen zen, Ertzaintzak Orio aldetik eta Usurbil aldetik bidea itxi baitzuen. Inguruetako etxe eta enpresetako jendea kalera irtenarazi zuten, guztia alarma faltsu bat izan zela egiaztatu zuten arte.

Bestalde, aurreko ostiralean, azaroaren 14an autopistan kamioi batek su hartu zuen eta hainbat kilometrotako kotxe ilarak sortu zituen, ez autopistan soilik, kotxe ilarak Aginagan ere somatu genituen. Hau dela eta, jendeak mendiko errepidetik barrena auto ilarak ekiditea zuen asmoa baina, bertan ere nahiko trafikoko mugimendua somatu zen.

Amaitzeko, aurrekoan Mari Angeles Arrutik esan bezala, laster Santa Zezilia eguna izango da. Hemendik, Aginagako korukoei ongi-ongi ospa dezatela desio diet.

ZUBIETA

DENIS ELORTZA

Zubietarrak aurrera begira

Igandean Joko-Garbi elkarteko bazkideek gizonetzko pribilegioa kendu eta emakumeak ere bazkideetat amaitzea erabaki zuten. Azken finean, anakronismo matxistak atzean utzi eta aurrera begira jarri dira bazkideak. Zorionak!



Eta Zubieta Lantzen elkartekook gainontzeko zubietarrak ere aurrera begira jarri nahi ditugu. Bihar, ostirala, frontoi atzeko lokalean (izena ere jarri beharko diogu behingoz) 18:30ean egingo dugun bilera orokorrera dei egiten dizuegu 2009ko ekintzen inguruan hitz egin dezagun. Frontoi atzeko lokalean filmak jarriko ditugu? Lokaleko ordenagailuekin zein ikastaro antolatuko? 2009ko euskal jaia, noiz eta nolakoa? Dantza eta patinaje ikastaroa errepikatu? Txirrindulari taldearen irteerak eta desafiak, noiz eta nora? Lokalean zein hitzaldi, aurkezpen edo ikastaro antolatuko ditugu? Zaborren inguruko kontzientzia nola astindu? Yoga, orienting, bertso-afaria, kanoa, mendi eta eski irteerak, irakurle kluba, ingeleseko klaseak, sukaldaritza ikastaroak, bidaien diapositiba emandak... Galdera eta ideia ugari du jendeak. Eta lau lagunek erabaki beharrean, hobe aurrera begirakoak denok adostu.

Elkar ezagutza eta elkartasuna, Lehen Elkartasun Asteko oinarriak

Azaroaren 26an hasiko da baina egun handia azaroaren 29a izango da

Hitzaldi, bideo emanaldi eta elkartasun jaialdi baten bidez, Usurbilen ditugun munduko herrialde desberdinetako errealitate ezezagun askoren berri izango dugu datorren azaroaren 26tik 29ra ospatuko den Lehen Elkartasun Astea. Inguru hauetan, oso anitza baita geure artean bizi den herritar kopurua eta bakoitzaren sorteria. Herrialde desberdinen arteko elkartasuna eta elkar ezagutza bultzatu nahi dira ekitaldion bidez. Guztia antolatzeko duela hilabete batzuetatik lanean aritu da, gai hauekiko interesa duen herritarren bilgune osatu berri bat; Usurbilgo Elkartasun Taldea.

Gizarte Ongizaketetik azaldu dutenez, munduko herrialde desberdinetako 255 lagun erroldatuta daude Usurbilen. Ekuador, Errumania, Portugal, Nikaragua, Brasil, Bulgaria, Peru, Kolonia, Maroko, Frantzia, Ukraina, Uruguay... Jatorri anitza dute geure artean bizi diren etorkinek. Herrialde zerrenda luze bateko ordezkari bizi da Usurbilen. Baina halakotan esan ohi den bezala, giza taldea bera ez da zenbaki huts bat, aipatu herritar bakoitzaren atzean istorio pertsonal bat dago, gogorra askotan. Aldiz, ez ditugu ezagutzen. Eta errealitate horiek ez ditugu gugandik milaka kilometrotara, etxe atari edo auzo berean baizik. Gertu, oso gertu beraz.

Horregatik internazionalismo eta



ELKARTASUN ASTEA IRAGARTZEKO OSATU DEN KARTELA.

elkartasun arloekiko interesa duen herritar talde bat osatu da azken hilabeteotan eta egindako lanaren emaitza datorren astean ikusi ahal izango da; Lehen Elkartasun Astea.

BESTE ESPERIENTZIEN BERRI

“Herrialde ezberdinetan bizi duten errealitatea ezagutzeko aukera izango da Elkartasun Astea”

Egitasmo hau antolatzeak indar metaketa bat suposatu du, antolatzaile

lanetan dabilen herritar baten, Joxe Piñasen aburuz. “Ikusten genuen, batzuk urteak generamatzala ekitaldiak antolatzen, baita beste batzuk ere, baina bakoitza bere kabuz. Ekimen koordinatu eta txukunago bat prestatu nahi genuen”, adierazi du.

Protagonistak parte hartzaile

Usurbilgo Elkartasun Taldeak antolatu ditu datorren asteari begira eskainiko diren hitzaldi, film emanaldi eta Elkartasun Eguna. Herrialde desberdinetako herritarren errealitatea ezagutzeko aukera izango da datorren hilaren 29an. Haiek protagonista izango

JOSUE
ARANZAZISTROKI
IGELTSERITZA
eta
PINTURA
Juan Jose enca. 6 Kalezar
Telf: 606 37 21 05

CLIMATA-T
klimatizazio orokorra
687 858 390
climata_t@yahoo.es

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Olandegia - Gozotegia
LABE-GOXO

Patri Jatetxea
K/nagusia 14. © 943 362 725

dira, baina baita parte hartzaile zuzenak ere. Frontoian ospatuko diren ekitaldien artean, eta Usurbilen herrialde desberdinetako ordezkariak dugula baliatuta, norberak bere sorterriko elikagai tipiko bat prestatuko du.

Jokorako tarterik ere izango da; inork cricketean aritu nahi badu, hurbil dadila pilotalekura azaroako azken larunbatean. Usurbilen batek baino gehiagok ikusiko zituen pakistandar batzuk joko horretan, cricketean jolasten. Elkartasun Asteako antolatzaileak haiekin harremanetan jarri eta hilaren 29ko ekitaldietan parte hartzera animatu zituzten. "Prest agertu ziren emanaldia egiteko", adierazi du Piñasek. Elkartasun jaialdian parte hartuko duten gainerako herritarrek bezala.

INTEGRAZIOA HELBURU

"Bertakoen eta etorkinen arteko elkar ezagutzan sakondu nahi da"

Oso pozik agertu ziren antolatzaileen asmoen berri izan eta bertan parte hartzeko gonbita luzatu zieten. "Etorkin bakoitzak atzean badu bizitza bat, eta sorterriko bizi baldintza batzuk. Ulergarria den moduan, hori guztia atzean uztea oso zaila eta gogorra da. Sustraiak benetan han dituzte", gaineratu du Piñasek. Eta astebete barru hori guztia partekatzeko gogoz daude. Berria den ekimen honen bidez, euren errealitatea, kultura edota ohiturak ezagutzeko aukera izango dugu guztiok.

Antolatzaileek horrelako ekimenen beharra ikusten dute, elkar ezagutzan

sakondu eta sorterritik urrun bizi direnak euren bizileku berriari integrazten laguntzeko. Horretarako ordea, Piñasen esanetan, "gune edo espazioak sortu behar dira".

Elkarte ezberdinen postuak

Munduko herrialde desberdinetako kultura eta folklorea ezagutzeko aukera izango da. Gobernu Kanpoko Erakunde desberdinek euren postuak jarriko dituzte. Haiekin batera izango dira Usurbilgo DYA-koak ere, karpa berezi bat altxako baitute. Barruan, Iranera egindako bidaiaria jasotzen duten argazkiak esekiko dituzte.

Elkartasun Egunaren aurretik, zinea eta hitzaldia

Etorkinei lotutako bi errealitate desberdin azaltzen dituzten ekitaldi bana antolatu dute datorren asterako. "Querida Bamako" bideo emanaldian, etorkinek euren sorterria utzi eta Europara ailegatu ahal izateko egin beharreko ibilbide gogorra erretratatu da. Azaroaren 28an ikusi ahal izango da. Bi egun lehenago berriz, indigenen mugimendua gertutik ezagutzen duen emakume baten lekukotza oinarri hartuta, hitzaldia izango da. Bi ekitaldiok Sutegiko auditorioan.

Aurrera begira, jarraitzeko prest

Elkartasun Asteak aurtengoa lehen edizioa du. Baina antolatzaileen nahia ez da azken hilabeteotako lana hemen amaitzea. Aurtengoari jarraipena eman asmoz osatu baita Usurbilgo Elkartasun Taldea. Arlo honetan interesa duenarentzat zabalik dagoen bilgunea.

ARITZ GORRITI _____

Elkartasun Astea, ekitaldiz ekitaldi

Azaroak 26, asteazkena
HITZALDIA SUTEGIN

19:30 Hitzaldia Sutegin:
"Mugimendu indigena Bolivian, boterea erabiltzeko beste modua".
Hizlaria: Segundina Flores.
Sorterrria: Las Bartolinas (Bolivia).

Azaroak 28, ostirala
FILM BATEN PROIEKZIOA

22:00 "Querida Bamako" bideo emanaldia Sutegin. Etorkinen ibilbidea kontatzen da. Europara iristeko nondik pasa behar duten ikusten da.

Azaroak 29 larunbata
ELKARTASUN EGUNA

Goizean, frontoian ekitaldi ugari.

-Jokoak: cricket-a, erakustaldia eta parte hartzea.

-Munduko dantzak eta janari dastaketa: Kuba, Sahara, Nikaragua, Kamerun, Ekuador, Kolonia, Bulgaria, Dominikar Errepublika, Palestina, Pakistan, Andaluzia eta Euskal Herria.

-Hainbat elkarteren postuak: Mundubat, Herriak Elkar Lanean, Mugarik gabe, Asociación Esperanza Latina eta Bidezko Merkataritza.

Antolatzailea: Usurbilgo Elkartasun Taldea.

Laguntzaileak: Mundubat eta Udala.

"LUBRIKATZAILE BEREZIEN ERAKUSTALDIA"

NEKAZAL TRESNERIAN MANTENU AURREZTEA

ELKARTASUNA KOPERATIBAN, AZAROAK 26, 12:00tan

Aukera-berdintasunaren inguruko diagnostikoa egingo du udalak

Datorren abendu hasieran egingo diren bilerak prestatzen ari dira, Gizarte Ongizate Zerbitzuekin batera elkarlanean dabilen Elhuyarko Aholkularitza Zerbitzuko lan talde bat; helburua, aukera berdintasunari lotutako diagnostiko bat osatzea da, beti ere, herritarren laguntzarekin. Oinarri gisa, aurre diagnostiko bat aurkeztuko dute Udarregi ikastolan burutuko diren bilkuretan. Gai honetan interesa duten herritarrei parte hartzea deitzen diete, euren iritzia eman edota gaiari lotutako bizipenak kontatu ditzaten. Zabaltzearen hausnarketa prozesuari buruzko xehetasun gehiago ditu Elhuyarko langile Aizpea Otaegik.

NOAUA! Diagnostikoaren abiapuntua zein da?

Aizpea Otaegi. Usurbilgo Udala geurekin harremanetan jarri eta aukera berdintasunaren inguruan diagnostiko bat egin nahi zutela komentatu ziguten. Herriko errealitatea ezagutu eta lan hori herritarren parte hartzearekin egin nahiko luketela. Gu halako lanetan ibiltzen gara eta proposamen tekniko eta ekonomiko bana aurkeztu genien. Udalarekin aztertzen aritu ostean, geuk egindako planteamenduetan ados zeuden.

AIZPEA OTAEGI

“Helburua argazkia egitea da, gero errealitate horretan eragin ahal izateko”

N. Diagnostiko baten ezaugarriak zeintzuk dira. Zer modutan defini liteke?

A. O. Diagnostiko bat errealitatearen argazki bat da, nola gauden galderari erantzuten dio. Diagnostikoa bera ez da helburua. Helburua normalean, argaz-



JONE KARRERA ETA AIZPEA OTAEGI, DIAGNOSTIKOA LANTZEN ARI DIREN ELHUYARKO AHOULKULARITZA ZERBITZUKO LANGILEAK.

kia egitea izaten da, gero errealitate horretan eragin ahal izateko; alderdi positiboak edota hobetu beharreko alderdiak zeintzuk diren ikusteko. Normalean, diagnostiko horretan oinarrituta, errealitate hori aldatzen lagunduko duen plangintza bat egin ohi da.

N. Berdintasun aldetik Usurbil nola dagoen jakin nahi da, ezta?

A. O. Eta batez ere jendeak nola ikusten duen errealitate hori. Guk datu batzuk jasoko ditugu, baina gero datu horien gainean helburua hausnarketa herritarrekin egitea da.

N. Herritarrak aipatuta, haiek diagnostikoa osatzerakoan paper garrantzitsua izango dute?

A. O. Geuretzako herritarren parte hartzearekin diagnostikoa osatzeak bi helburu ditu. Beharrak eta herriko errealitatea zein den herrian bertan bizi denak daki. Bere egunerokotasunaren zer egoera suertatzen zaizkion eta zer gauza botatzen dituen faltan eta zeintzuk sumatzen dituen, herritarrak daki. Eta beraz, errealitatera egokitutako

politika bat garatu ahal izateko interesgarria da. Bestetik, herritarren parte hartzea bultzatzeak, gai horren inguruan hausnartu, eztabaidatu, eta iritzi desberdinak ezagutzeko aukera ematen du. Batzuetan bada jende bat gai honen inguruan hausnartutakoa dena, baina baita gai honi sekula buelta erdi bat eman ez diona ere.

N. Parte hartzeari lotuta, hiru bilera antolatu dira. Adin tarteka?

A. O. Pentsatzen dugu gai honetan adinak baduela garrantzia. Adinak badu eraginik edo zeresanik norberak errealitatea irakurtzeko moduan. Adinaren arabera, behar, nahi eta bizi-tzeko modu desberdinak ditugu. Eginda gero ikusiko dugu zer emaitza ematen duen; ia benetan adinaren arabera, behar eta hutsuneak desberdin edo berdin ikusi eta sentitzen diren.

N. Parte hartu nahi duten herritarrek zer egin behar dute?

A. O. Ez da beharrezkoa aurre hausnarketarik egitea. Parte hartzeko motibazioak oso pertsonalak izan daitezke.

Geuk bileretara oinarrizko dokumentu bat eramango dugu. Orain ari gara datu bilketan. Geure asmoa, taldearen hausnarketa horren gainean oinarritzea da. Bilera hauen helburua, denok ditugun esperientzia pertsonalak kontatzea da; aukera berdintasunari lotuta bere bizitzan zer gertatu zaion, nolako egoerak bizi izan dituen eta horien inguruan zer balorazio egiten duen. Benetan interesa duen edonor hurbildu dadila, batere beldurrik gabe. Parte hartzeko gogoz direnek aurretiaz izena ematea eskertuko genuke, bilera ahalik eta ondoen antolatu dezagun.

N. Aurre diagnostikoa osatzeko, zer nolako datuak biltzen ari zarete?

A. O. Asmoa, aurretik egindako lanak kontuan hartzea da, Eustat-ek, edota Emakundek bilduta dituzten datuak baliatzea. Baita elkarrizketak egitea ere; udal langileei arlo jakinetan nola lan egiten den, eta politikak eta programak diseinatu eta garatzerakoan genero ikuspegia txertatzen den jakiteko. Eta udal langile izan gabe, esparru desberdinak ondo ezagutzen dituzten herritarrei. Udalaren eta udalerriaren egoera aztertu nahi genuke.

“Sare bat osatzea interesgarria izaten da”

NOAUA! Bileren ostean, zer pauso jarraituko dira?

Aizpea Otaegi. Guk beti nahi izan dugu eta jendea interesatzen zaio, diagnostikoan parte hartuko duten herritarrei azken txostena zer modutan egituratzen den ikusteko aukera izatea. Kasu honetan, hala egitea aurreikusten da. Bestalde, eta hori jada Usurbilgo Udalaren erabakia litzateke, diagnostikoaren ondoren, plangintza bat diseinatu eta hura garatzea etorriko balitz, interesgarria litzateke diagnostikoan parte hartu duten herritarrekin berriz ere harremanetan jartzea. Parte hartzen duen jendearekin sare bat osatzen joatea interesgarria izaten da. Horretarako normalean bileretan parte hartzen duen jendearen datuak biltzen ditugu.

Egunerokotasunean, aukera berdinarak al ditugu? Hori argitu nahi da

Usurbilgo Udalak emakume eta gizonen aukera-berdintasunaren inguruan diagnostikoa egitea erabakia du usurbildarren parte-hartzearekin eta horretarako Elhuyar Aholkularitzaren laguntza izango du.



HERRITARREK DIAGNOSTIKOAN PARTE HARTZEKO AUKERA IZANGO DUTE.

Ikerlan honekin Usurbilgo Udalak zera jakin nahi du: Usurbilen bizi diren emakume eta gizonen aukera berdinarak ote dituzten euren eguneroko bizitzan edota, generoa tarteko, bazterketarik sentitzen ote duten arloren batean. Hala bada, diagnostikoarekin bazterketa eragiten duten egoera horiek identifikatu nahi ditu Udalak, gero, egoera horietan eragin ahal izateko.

Informazio bilketa

Diagnostikoa egiteko hainbat informazio-iturritara joko du Udalak:

- Batetik, zeharkako informazioa bilduko da, gaiarekin lotuta beste erakunde batzuek Usurbilen egin dituzten ikerlanak (Emakunde, Eustat...) edota Usurbilen bertan beste arlo batzuetan egin diren ikerlanak eta datuak kontuan hartuta. Horrela, diagnostikoa egiteko lagungarri izan daitezkeen datuak eta informazioak bilduko dira.

- Bestetik, elkarrizketak egingo zaizkie, bai hautatutako Udaleko teknikariei, baita arlo jakin batzuetan lan egiten duten herritar esanguratsuei ere.

- Eta, azkenik, herritarren lantaldeak edo foroak jarriko dira martxan. Foro horien bidez, Usurbilgo egoeraren inguruko datuak aurkeztuko dira eta herritarren iritziak eta ekarpenak jasoko dira.

Hiru lan-talde osatuko dira

Hain zuzen ere, Usurbilgo herritarren iritziak eta ekarpenak jasotzeko 3 lantalde antolatuko ditu Udalak. 3 lantalde horiek, adinaren arabera antolatu nahi dira: lantalde bat antolatuko da 16-30 urte bitarteko gazteekin; bestea, 31-50 urte bitarteko herritarrekin; eta azkena, 51 urte baino gehiago dutenekin.

Lantalde horietan era guztietako usurbildarrek parte hartzea nahi du Udalak, baina gaiarekiko interesa duten herritar guztiei ere aukera zabaldu nahi die bereziki eta horrela izan dadin, bi bide zabalduko dira lantaldeak osatzeko:

- Batetik, erroldatik ausaz hainbat herritar gonbidatuko ditu Udalak, prozesuan parte har dezaten.

- Eta, bestetik, gaiarekiko interesa duten herritarrek izena emateko aukera izango dute, prozesuan parte hartzeko. Horretarako, Udalera deitu beharko dute interesdunek.

Bilerak azaro-abenduan izango dira honako data hauetan eta halako tokitan eta udalak herritar guztiak gonbidatu nahi ditu prozesuan parte hartzera. Partehartzeko edo informazio gehiago jasotzeko: 943 377 110.

Herritarrei zuzendutako foroak

	1. TALDEA	2. TALDEA	3. TALDEA
ADINA	16-30 urte	31-50 urte	50 urtetik gora
EGUNA	Abenduak 9	Abenduak 10	Abenduak 11
TOKIA	Ikastola	Ikastola	Ikastola
ORDUTEGIA	18:00-20:00	18:00-20:00	18:00-20:00

“Etxe Berri de Luxe” antzezlan eskainiko du larunbat honetan Txerriki taldeak

Santixabeletan eskaini zuten lana da Etxe Berri de Luxe. Eguraldiak ez zuen lagundu orduan, eta Artzabalen egitekoa zena, Sutegin antzeztu behar izan zuten. Jendetza bildu zen Sutegi atarian eta bi saio eskaini behar izan zituzten. Hala ere, jende asko obra hau ikusi gabe geratu zen, eta NOAUA!k antolatatu duen Kulturaldiari esker, Txerriki taldearen antzezlan honekin gozatzeko aukera izango dugu berriz ere. Sarrerak aldeztu aurretik Txerriki taldearen eta NOAUA!n eskura daitetzke, 4 eurotan. Egunean bertan takilana, baina 5 eurotan. 14 urtetik aurrerakoentzat egokia da Etxe Berri de Luxe izeneko obra.

Txerriki taldeko kide da Alex Tello. Bere hitzetan nabari da Santixabeletako arantza kentzeko gogoia. Artzabalen aire librean aritzekoak ziren baina euria egin zuen egun hartan eta Sutegin antzeztu behar izan zuten: “eguraldia tarteko, jende ugari antzezlan ikusi gabe geratu zen. Sutegin ez zuten sartzerik izan”.

Orduetik hona, antzezlan hobetu egin dute eta larunbat honetako saioan, nobe-



NOAUA!KO BAZKIDEEK 3 EUROTAN ESKURA DEZAKETE SARRERA, BAINA ALDEZ AURRETIK NOAUA!TIK PASA BEHAR DUTE.

dadeak izango dira: eszena berria eta hiru aurpegi berri. Argien diseinua ere berezia izango da honetan. Guztira 15 lagun pasako dira oholta gainetik.

Auzo berrian, arrotz

Etxe Berri de Luxe obran, hiria utzita, Etxe Berrira bizitzera etorri diren ama, alaba eta semearen istorioa kontatzen da. Auzo berrian jende ezezagunaren artean

arrotz sentituko dira. Honela eta pixkanaka, etxe horretako bizilagunak eta beraien arteko harremanak ezagutu ahala, etxe araudira eta giro berri batera ohitu beharko dira. Ezustekoz jositako errutina berri horretara egokitu beharko dute hiritik herrira etorriko bizilagun berriak.

NOAUA!ren Kulturaldiaren eskutik antolatatu da larunbateko saioa.

“Emakume baten... egun zoriontsua” antzezlanarekin arituko dira datorren astean kaxkoan

Genero indarkeriaren aurkako Gereguna izango da azaroaren 25ekoa. Gai honi lotuta, Usurbilgo udaletxeko Ongizate, Emakume eta Gizarte Politika batzordeak kale antzerkia antolatatu du. Txerriki taldeak “Emakume baten... egun zoriontsua” antzezlan eskainiko du kaxkoan, arratsaldeko 18:00etan. Eurria egingo balu, emanaldia frontoian egingo litzateke.

Txerrikik eskainiko duen antzezlanaren sinopsiak honela dio: “Han zegoen

Miren, goizeroko geltokian eguneroko autobusaren zain. Hala, inoiz itxarongo ez zionaren esperoan minutuak ematen zituen egunero, beti. Han Miren, lanerako bidean markesinarik gabeko geltokian. Gaurko eguna merezi duzun eran igarotzeaz, zer deritzozu? Egun zintzoki baikorragoak izan ahal gintezkeelako...”.

Adin guzti-guztietako emakume eta gizon, gizon eta emakumeentzat osatutako obra datorren asteartean eskainiko dute kaxkoan, arratsaldeko 18:00etan.



ASTEARTEKO SAIDAK, GENERO INDARKERIAREN AURKAKO EGUNAREKIN BAT EGINGO DU.

Igande honetan

Patxi Azpirotzekin paseatzera goaz, animatzen?

Patxi Jagoba Azpirotz usurbildarrak Gipuzkoako 161 ibilbide bost liburuxkez osatutako bilduman jaso ditu. Horietako bat aukeratu du, igande honetan, NOAUA!k antolatutako irteera egiteko; Aiako Harriak inguruetara. Parte hartu nahi duenak, izen ematea ostegun honetan bertan itxiko da.

Eguraldiak baldintzatuko du ibilbidea. Giro ona bada, Aritxulegitik ubidea gurutzatu eta Erlaitz pareko meategietako trenbide zaharretara jaisteko asmoa dago. Eguraldi txarrarekin Arditurrira joango dira parte hartzaileak. Ibilaldiaren inguruko informazioa Azpirotzek berak idatzitako "Gipuzkoan zehar, paseo moduan egiteko 161 ibilbide lauak edo nahiko lauak" bildumatik hartu du usurbildarrak. Bera izango da gainera, igande honetan irteerako gidari lanak egingo dituen.



ERLAITZEKO MEATEGIETAKO TRENBIDEA GURUTZATUKO DA IGANDE HONETAKO IBILBIDEAN.

Guztira, 10 bat kilometro inguruko ibilbidea osatu nahi da. Goizeko 8:30etan finkatu da hitzordua, Bordatxo pareko errotondan. Itzulera, 13:30ak alderako. Joan etorria auto-

busez egingo da, eta doan. Aipatu bezala ordea, txangoan parte hartu nahi duenak alde aurretik izena eman behar du NOAUA!-n, ostegun honetan, azaroaren 20a baino lehen.

Azaroaren 29an Usurbilgo elizan, Igeldoko Lezkarri Abesbatzaren kantaldia

Datorren astean, Igeldoko Lezkarri abesbatzaren bisita jasoko dugu. Usurbilgo parrokiari ari-tuko dira kantuan, azaroaren 29an larunbata, arratsaldeko 18:30ean.

Igeldoko kostaldean aspaldidanik bada lurmutur bat, Lezkarri deitzen dena. Hortik hartu zuen izena Igeldoko abesbatzak. Duela urte batzuk osatu zen eta gaur egun 20 abeslarik osatzen dute (hamar emakume eta beste hamar gizon). Usurbilen eskainiko duten kontzertuak bi zati izango ditu.

Euskal kantuak lehenik, Afrikako kantuak ondoren

Lehenbiziko zatian, Euskal Herriko bost abesti ezagun entzuteko parada izango da: "Goizian", "Biotz badaukat eta" eta "Itsasoa", besteak beste.

Bigarren zatian lau abesti afrikar kantatuko dituzte; horien artean "Nkosi Sikelel'i Afrika" (Jaunak Afrika bedeinkatu dezala), Hego Afrikako ereserkia (Hego Afrikan apartheid arauekin bukatu ondorengo) eta "The lion sleeps tonight" kantua. Abesti afrikarretan, laguntzaile bezala, Igeldoko perkusio taldea ari-tuko da.



20 BAT ABESLARIK OSATZEN DUTE LEZKARRI ABESBATZA.

Hostoak firin-faran

Kaixo lagunak!! Lau urteko neska mutilak gara. Astelehenean hostoak biltzera joan ginen "Anerrekara". Jaione musikakoak, kitarra eta txistuarekin ardiei, behiei eta zaldiei kantatu zien eta guk ere bai:

FIRIN FIRIN FIRIN FIRIN FIN
HAIZEA DATOR
MENDI GOITIK

UDAZKEN KEN KEN
TXORIMALOA JAZTEN (BIS)

TXAPEL TXAPEL
TXAPELA TXAPEL
BURUA DAGO
EPEL EPEL



ANERREKAN IBILI GINEN
HOSTOAK BILTZEN.

Olarrondotik pasa ginen eta egur asko zegoen toki batetara iritsi ginen eta han aizkolarietan jolastu ginen. Hosto eta egur batzuk bildu genituen eta poltsak bete-bete eginda ikastolara itzuli ginen. Hauekin, eskulanak egingo ditugu: hostoak margotu, kolatu...

Abenduaren 8an, Odol Emaileen Eguna

Abeduaren 8a Usurbilgo Odol Emaileen eguna da. Aurtengo ospakizuna bideratu dute dagoeneko. Aurten, Antxeta jatetxean egingo da ospakizuna. Odol Emaileen ordezkariak aditzera eman dutenez, "egun horretan, zendutako odol emaileak gogoratzeaz gain, bazkaltzeko elkartuko gara. Aurten Antxeta Jatetxean izango da otordu lekua".

Ospakizunera bertaratu nahi duenak, deitu diezaiola elkarteko ordezkari bati:

Patxi 615 760 458

Agustina 943 363 102

Kattalin 943 362 139

Maite 943 366 040

Bazkari txartelak 32 euro balio

du. Bertaratu nahi duenak, ahal

bada, azaroaren bukaerarako dei

dezala.

Amodiozko gutun

Lehiaketa Santuenean

Lehiaketa honetan 15-25 urte bitarteko usurbildar gazteek parte har dezakete. Lan guztiak jatorrizkoak, argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan beharko dute.

Santuenea Kultur Elkartearen lokalean aurkeztu beharko dira lanak abenduaren 12an, arratsaldeko 17:00etatik 19:00ak bitartean. Lanek gutun forma izan beharko dute eta DIN A-4 orritan eskuz zein ordenagailuz idatzita aurkeztu ahal izango dira.

Egilearen datuak (izen abizenak, adina, telefonoa eta helbidea) kartazal itxi batean sartuko dira, ondoren kartazal txiki hau eta gutuna kartazal handiago batean sartu eta aurkeztuko dira.

Irabazlearen izena abenduaren 20an jakingo da. Saria: 100 euro.

Gabonetako Postalen

Lehiaketa martxan

Usurbildar haur eta gaztetxoek parte har dezakete lehiaketa honetan. Gabonetako ohituren inguruan osatu beharko dira postalak eta folio erdiko tamainan marraztu beharko dira. Edozein paper mota edo teknika erabil daiteke.

Lanak izenik gabeko eta itxitako gutunazalean aurkeztuko dira, barruan beste gutunazal bat egongo da egilearen identifikazio datu hauekin: izen-abizenak, adina, helbidea eta telefonoa.

Kategoria bakoitzeko irabazleari 30 euroko bono bat emango zaio liburu denda batean materiala eros dezan.

Santuenea Kultur Elkarteak duen lokalean aurkeztu beharko dira postalak abenduaren 12an, arratsaldeko 17:00etatik 19:00ak bitartean.

ANTXETA
taberna-jatetxea

ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak



EGUZKITZA, 4 USURBIL - 943 370 344

www.noaua.com

USURBILGO ATARIA

Igande honetan, Endika Abril txapelketako finala Oiartzunen

Hainbat astez atzeratu bada ere, azkenean iritsi da Endika Abril Errebote Txapelketaren garailea argitzeko eguna. Igande honetan jokatuko da finala, Donibane Lohitzuneko Luzaz Gazte eta Villabonako Behar Zana taldeen artekoa. Goizeko 11:00etan hasiko da finala, Oiartzungo errebote plazan.

Zubietak, aurten bi talde jarri ditu lehian. Lehen fasean bikain aritu zen Zubieta 1 taldea, bigarren izan zen sailkapenean. Baina 2. fasean, Villabona izan zen finalerako txartela lortu zuena.



IGANDE HONETAN JOKATUKO DA FINALA OIARTZUNEN.

Kirolariek in solasaldia Udarregi ikastolan

Kirolaren beste alderdi ezezagunak. Herriko hainbat kirolari gai horren inguruan arituko dira hizketan datorren azaroaren 27an, osteguna.

Hitzaldia Udarregi ikastolako erdiko aretoan izango da, arratsaldeko 18:00etan. Kirol munduan eman dituzten urratsak azalduko dituzte herriko kirolariek, tartean profesionalak diren batzuk.

Hitz Aho guraso elkarteak antolatutako duen mahai-inguru hau Joxe Mari Izetak bideratuko du. DBH zikloko 12-16 urteko gazteei zuzenduta dago mahaingurua.

Mariskada irabazi du eskubaloit taldeko zozketan



Pasa den asteburuan, Usurbil KE eskubaloit taldeak mariskada bat zozketatu zuen errifa bitartez. Juan Galardi izan zen irabazlea. Eskubaloit taldeak eskerrak eman nahi dizkio Bruñori.

Bidaia eta mendi irteeren argazki eta bideo lehiaketa

Bidaia eta Mendi Irteeren Argazki eta Bideo Lehiaketa antolatuta du bigarrenaz Andatza Mendizale Elkarteak. Hauexek dira lehiaketaren oinarriak:

1.- Lana diapositibetan edo modu digitalean aurkeztu beharko da (argazkiak edo bideoa). Azken bost urte hauetan gauzatu den bidaia edo mendi irteera baten ingurukoa izan beharko du. Lanaren kopia bat bidali beharko da, originala jabearen esku geratuko da.

2.- Iraupena: gehienez 30 minutu.

3.- Lana aurkezteko azken eguna eta lekua: azaroaren 26a asteazkena, arratsaldeko 19:00etan Usurbilgo Udal Liburutegian (Sutegi eraikina, Irazu kalea 14, 20170 Usurbil).

4.- Hiru sari izango dira: 300, 200 eta 100 eurokoak.

5.- Lanak euskaraz aurkeztu beharko dira.

Informazio gehiago e-posta honetan: andatzake@usurbil.com

Pilota partidak

AZAROAK 21 OSTIRALA
Usurbilen, 21:15

Eskuz binaka nagusiak 2. maila
USURBIL-INTZA
(Jabier Santxo-Asier Katalina) (Lasarte)

AZAROAK 22 LARUNBATA

Usurbilen, 16:00
Eskuz banaka infantilak
OIZARPE 2 - USURBIL 2

ZUMAIA - USURBIL 2
Peru Beloki)

OIZARPE 2 - USURBIL 3
(Josu Furundarena)

AZKOITIKO 2-OIZARPE 3

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 • ASTEASU

© 943 69 68 52 • 620 800 186

Agenda !

Azaroak 20 osteguna

- Santa Zeziliren omenezko kalejira 18:00etan, eta musika saioa Sutegin 19:00etan.

Azaroak 21 ostirala

- Pello Añorga ipuin kontalaria. 18:00etan udal liburutegian. 7 urtetik aurrerakoentzat.

- "Mali, gertu bezain urruti", ikus-entzunezkoa. 19:00etan Aginagako ludotekan. Argazkilariak: Tomas Imaz eta Joakin Pagola.

Azaroak 22 larunbata

- Txerriki taldearen "Etxe Berri de Luxe" antzezlan, 20:00etan Sutegin.

Azaroak 23 igandea

- Paseo Eguna. Aiako Harrietara irteera. 8:30ean Bordatxo errotondatik abiatu eta 13:30erako etxean. Gidari lanak: Patxi Azpirotz. Antolatzailea: NOAUA! Kultur Elkarte.

Azaroak 25 asteartea

- "Emakume baten... egun zoriontsua" kale antzerkia, Txerrikiren eskutik. 18:00etan kaxkoan.

Azaroak 26 asteazkena

- Amaia Zinkunegi ipuin kontalaria. 18:00etan udal liburutegian. 4 urteko haurrentzat.

- Boliviari buruzko hitzaldia. 19:30ean Sutegin.

Azaroak 27 osteguna

- "Bizitzako lehen urteetan elikadurak duen garrantzia", hitzaldia Sutegin, 17:30ean. 0-3 urteko haurren gurasoei zuzendua.

Azaroak 28 ostirala

- "Querida Bamako" filmaren emaldia, 22:00etan Sutegin.

Azaroak 29 larunbata

- Elkartasun Eguna, goizean frontoian.

- "Ezker Eskuma" antzezlan Sutegin, 22:00etatik aurrera. Sarrerak aldeztatik kiroldegian, 5 eurotan. Egunean bertan takilan, 8 euro.

Zuberoako ikastolen aldeko otarrak jarri dira salgai

Eguberrien atarian, Zuberoako produktuak eros- teko garai ederra da. Gainera, Nafartarrak taldeak egin duen eskaintzaren bitartez, Sohütako Eperra eta Alozeko Basaürüko ikastolak laguntzeko kanpainan hartuko dugu parte. Bi otar prestatu dira, 36 euroko bat, 47 eurokoa bestea. Hilabete amaierara arte eska daitezke; Txiribogan eta Bordatxon jarri diren orrietan izena eman behar da.

Bi otar ditugu aukeran. 36 eurokoan, kilo bateko ardi gazta, 500 gramo ezti-potea, ahate gibelarekin egindako pate (200 gramo) eta etxeko gaila pakete bat.

Bigarren otarrean, 47 euroren truke, haxe aurkituko du erosleak: kilo bateko ardi gazta, ahate gibelarekin egindako pate (200 gramo), txa-



IAZ BEZALA, HAINBAT HERRITARARI DIRA KANPAINA BIDERATZEN.

halki kontserba piperrekin, berotu eta jateko prest (750 gramo) eta etxeko gaila pakete bat.

Nola eskuratu otar hauek?

Otarrak eskuratzeko izena eman Txiribogan edo Bordatxon jarri diren zerrendetan. Horretarako, azaroaren 29ra arteko epea dago.

"Ezker Eskuma"

antzezlenerako sarrerak

Ostiral honetan, azaroak 21, Oiarde kiroldegian "Ezker Eskuma" antzerkiaren sarrerak jarriko dira salgai. Azaroaren 29an izango da antzezlan, 22:00etan Sutegin. Sarrerak 5 eurotan salgai.

Kultur arloko

dirulaguntzak, oharra

Kultura Batzordetik zera jakina: Krazi nahi zaie dirulaguntzak eskatu dituztenei: "2008ko kulturako diru-laguntzak direla eta, eskaera egin zutenak ekintzak justifikatzen joan daitezela ahalik eta azkarren".

Bizitzako lehen urteetan elikadurak duen garrantziari buruzko hitzaldia

Oinarriak Eraikiz Guraso Elkarteak elikadurari buruzko hitzaldi bat antolatu du. "Bizitzako lehen urteetan elikaturak duen garrantzia" izena du Javier Arozena hizlariak eskainiko duen hitzaldiak.

0-3 urteko bitarteko haurrak dituzten gurasoei eta nahi duen orori zuzenduta dago hitzaldia.

Sutegin egingo da hitzaldia, azaroaren 27an osteguna, arratsaldeko 17:30ean.



HITZALDIA SUTEGIN EGINGO DA, ARRATSALDEZ.

ETXEBIZITZA

- Pisu salgai Usurbilen (Txaramunto; 2 urte). 97 m² - erabilgarri. Egongela-sukaldea (35 m²), 3 logela, 2 bainugela, balkoia, arropak esekitzeko toki itxia, garajea, trasteleku eta igogailua. Eguzkitsua. 375.000 euro. 616443507.
- Kaxkoan pisu bat alokatzen dugu, garajea eta trasteroa dauka. Abala eskatuko da. Deitu 18:00tatik 21:00etara 649 261 704 telefono zenbakira.
- Usurbildar gazte bat alokairuan dagoen etxe baten bila, Usurbilen. Tf: 652 750 789.
- Etxe bat alokatu nahiko nuke ahal bada Usurbilen edo inguruan, bakarrik edo konpartitzeko. 620431108.
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Zubietan alokairuan pisu bat hartuko nuke urte osorako. 675709894
- Baserri bat hartuko genuke errentan bi lagunek. 656 703 814.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarreako, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Zubietan 75 metro karratuko etxebizitza salgai. 2 logela, sala, komun bat, trastero txiki bat eta sukalde handi bat. Kanpokaldera ematen du etxe osoak eta bizilaguntzako aparkalekua dauka. 195.000 euro. 690290981.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituen. Dena berriua eta amueblatua. 47.000.000 pt. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Etxebizitza salgai. 86m karratu erabilgarriak + 13m karratu balkoi(eguzkitsua), 3 logela, bainua, komuna, kalefazioa, trasteroa eta igogailua. 318.000 euro. Tf: 688670561.
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 220.000 euro. 678084020.
- Usurbilen alokairuan bizitzeko logela edo pisu baten bila nabil. Bakarrik edo konpartitua. 625706912.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna, sukaldea, egongela eta trasteroarekin. 685731792.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Bost ateko Nissan Micra daukat salgai. Matrikula

4545DNN. 666894283 (Ana).

- Atxegalden 32 metro karratuko garajea alokatzen dut. Garaje edo almatzen moduan ibiltzeko sarre-rea egokia. 943373481
- Honda CBF-250c.c motorra daukat salgai. 3 urte ditu eta 5500Km, egoera oso onean dago eta garajea egondakoa da. 657770131.
- 5 ateko Peugeot 306 diesel salgai. Egoera onean, prezio ona (800 euro negoziagarri). 652713312 (Merce).
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. Interesatuak deitu 658716970 telefonora.
- Etxebeste kalean 44 m²-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.
- Usurbilen alokairuan hartzeko garaje baten bila gabiltza. Furgoneta bat sartzeko modukoa izan behar du. 647299299.
- Volkswagen California bat daukagu salgai. 92. urtekoa, 2400eko motorra, konpondu berria... 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
- Hiru ateko Honda Civic salgai. Beti garajea egondakoa. 620625823.
- Citroen Saxo diesel daukat salgai. Matrikula SS-BC da. 656734413 (Marijo).
- BMW 650F motorra daukat salgai. Egoera onean eta garajea egondakoa. 666988050.
- Galtzaragainen 14 metro karratuko garaje itxi bat daukat salgai. 617972350

LANPOSTUAK

Lan-eskaintzak

- Txiribogan sukaldaria behar da, ostegunetik igandera. 699 451 082 (Arantxa).
- Antxeta jatetxean kamarera behar da, astelehenetik ostiralera lan egiteko.
- Sukaldari bat behar da Xarma tabernan. Interesatuak deitu 943368771 telefonora.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta umea zaintzeko pertsona behar da. 627278907.
- Aginaga sagardotegian zerbitzari bat behar dugu astebukaeratan lan egiteko. 943 366 710.

Lan-eskaerak

- Mekanikari lanak egiteko edo baserriko lanak egiteko prest nago. 690261041
- Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo tabernari lanak egiteko ere prest nago. 608835033
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.
- Usurbilgo neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko... Interesatuak deitu 21:00-23:00era edo bestela kontestagailuan mezua utzi, 943 36 44 69.

Esperientziaduna.

- Neska eskaldun bat behar da Kinkildegian lan egiteko. 609099824 / 943214508.
- Neska bat eskaintzen da, Usurbilen arratsalde umeak zaintzeko. Interesatuak deitu: 679062726 / 943575788
- Neska bat eskaintzen da, Usurbilen arratsalde umeak zaintzeko. Interesatuak deitu: 661702708 / 943575788
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko goizeko 7:30etik goizeko 9:30/10:00ak arte. Umeak zaindu edota ikastolara eramateko, astelehenetik ostiralera. 647 742 893.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Sukaldaria naiz, goizez egingo nuke lan, Usurbilen bizi naiz. Autoa dut. Esperientzia asko: 669243437
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibiltatea. 679742413.
- Portalak eta eskaierak garbitzeko neska bat eskaintzen da, esperientziaduna. 690 784 113.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Ostegun iluntzen, errealeko jertsea galdu nuen frontoian. Norbaitek bilatu badu, 686969112
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umezantat egokia. 616586851.
- Yorkshire terrier arrazako txakur bat galdu zaigu. 609 653 440. Itzultzen duena saritua izango da.
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Bakarkako haur ohe bat salgai koltxoi eta guzti. Tamaina: 90 x 1,90. Oso gutxi erabilia eta polita. Interesdunek: 629 730 299.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriei eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220925
- Aritz egurrezko aulkiak salgai. 943 36 20 49.
- 2. eskuko trikititza erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



Zorionak Patil! Azaroaren 22an urtebetetzea eguna opsatuko duzu, ondo pasa, zure koadrilaren partez!

Zorionak Amaia! 26an egingo dituzu 5 urte. Zorionak eta muxu potolo bat etxeko guztien partez!!



Zorionak Marixabel! Zorionik beroenak etxeko denen izenean anai-arreba eta koinatu koinaten eta batez ere Maren txikiaren partez.



Zorionak Julian! Azaroaren 26an zure urtebetetzea izango da. Zorionik beroenak etxeko partez eta bereziki Julen, Nerea, Koldo eta Olatzen partez. Gure txikien izenean, ondo pasa!



Zorionak Saioa! Azaroaren 18an egin dituzu 3 urte. Zorionak eta muxu potolo bat familiaren partez!



Zorionak bikote! Aitaxok 5ean 31 urte eta Danelek 20an 3 urte handi! Muxutxuak etxeko partez eta besarkada potolo bana!

Oharra: *Jaiotzak*, Usurbilgo Bake Epaitegitik jasotako datuak. Merkatu Txikirako mezuak, zorion agurrak, hildakoen edota jaioberrien aipamenak orri hone-tan ikusi nahi badituzu, deitu bulego orduetan telefono zenbaki honetara: 943360321 eredakzioa@noaua.com

Auto Guria



Auto Konponketa

Pre I.T.V.

Marka guztiak

Osinalde, 9 • USURBIL (Gipuzkoa)
☎ 943 363 298 • Faxe: 943 363 862



antenas
Telemar



t d t

elkano kalea 13 HERNANI

Tlfnoa. 943 55 33 99
antenas telemar@terra.es




PINTURA ETA BARNIZ EKOLOGIKOAK
toxikorik gabe, kolore gama zabala

ALKARTASUNA
Usurbilgo Baseritarren Kooperatiba
100 URTE



ERRAUSKETARIK EZ
LURRA BASERRIA HERRIA
BIZIRIK



**“ Emakume eta
gizon askez
osatutako
Euskal Herria
eraiki
nahi dugulako
emakumeen
aurkako
indarkeriarik
EZ!”**

**USURBILGO UDALA.
BERDINTASUN SAILA.**